
48 10

“EUSKALDUNA” ONTZIOLAK

1900. urtean sortu ziren Eduardo Aznar eta Ramón de la Sota jaunen eskutik Compañía Euskalduna de Construcción y Reparación de Buque izenarekin eta Itsasadarraren ezkerraldean kokatuta zeuden, ia Bilboko erdigunean.

Hasieran bi dike zituzten: 1.a (105 m luzera, 14 m zabalera) eta 2.a (101 m luzera, 28 m zabalera), “Diques secos” konpainiatik oinordetzan hartuta, azken hura 1868. urtean sortuta. 1902. urtean, 3. dikea eraiki zen (184 m luzera, 18 m zabalera), hura ere ontzigintzan erabiltzeko, berezitasun batekin: bi sektoretan bereizi zitekeen, bi ate flotatzaileen bidez eta era horretan, bi ontzi batera eraiki ahal ziren. Horrez gain, bi harmaila eraiki ziren, eta horiei esker, eraikitako itsasontzien tamaina handitu ahal izan zen, eta ondorioz, dikeak konponketetarako bereziki utzi ziren.



Euskalduna Jauregia. Batzar zentroa eta auditorioa/antzokia barne hartzen dituen eraikin handia.

Mundu gudako aldiak oso errentagarriak izan ziren ontzioletarako. Lehenengo guda zibilaren ostean, ordea, eraikuntzarako gaitasuna murriztu egin zen lehengai nahikorik ez zegoelako.


50eko hamarkadatik aurrera, jarduerak nabarmen egin zuen gora 1970eko hamarkadaren amaierara arte. 3.000 langileri baino gehiago lana eman zitzaien eta horrez gain, ontziolen inguruan hornitzaile gisa jarduten zuten enpresa txikien talde bat bildu zen.

Lehiakortasunaren baldintzek ontziolan kalte eragingo dute nahiz eta 1969. urtean Astilleros Españoles SA sortu Euskalduna eta Sociedad Española de Construcción Naval (Sestaoko “La Naval” izenarekin ezagunagoa) eta Astilleros de Cádiz” enpresa publikoa batzearen ondorioz.

Asiako ontziolen lehiakortasunaren eraginez, ontziolaren kapital pribatua pixkanaka ateratzen hasiko da eta Europar Batasunean sartu ondoren, ontzigintza berregituratzea eskatuko du, Ontziolak itxiz. Langileek gogor egin zioten erabaki horri aurre.

Hala eta guztiz ere, ontzien konponketan oinarritutako aldi baten ondoren, langile talde murriztu batekin, ontziola behin betiko itxiko da 1988. urtean.

Urte gutxi ondoren, zonaldeko hiri berrikuntza etorri zen: bere ekialdeko sektorean “Euskalduna” Batzar eta Musika Jauregia eraiki zen, 1999. urtean inauguratuta. Federico Soriano eta Dolores Palacios ar-



Ortoargazkia 1965. UTM 30N ETRS89 // X: 504406 m // Y: 4790447 m. Eraikitzen edo konpontzen ari diren hainbat ontzi ikusten dira, bai dike lehorretan (argazkiaren ezkerraldean) eta bai ontziolaren harmailetan (argazkiaren eskuinaldean). Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Bizkaiko Foru Aldundia.

kitektoak hura diseinatzeaz arduratu ziren eta izena ontziolen oroigarri bezala adostu zuten.

Eraikin handi honen fatxada corten altzairuz partzialki estalita dago. Itxura herdoilduta dauka, ontziolan eraikitzen ari ziren ontzien berezko koloreak gogora ekarriz. Esan daiteke areto nagusia Euskal Herriko handiena eta edukiera gehiena duena dela (2.164 eserleku). Nabarmentzen dira eszenatoki zabala, eszenografia konplikatuko operen muntaiarako pentsatuta, orkestrarako zuloa eta kontzerturako organoa.

Ontziola osatzen zuten mendebaldeko dike lehorrak “ría de Bilbao” izeneko Itsas Museoarekin lotuta kontserbatzen dira. Horietako bat, normalean, urez beteta dago eta besteak, berriz, konporta itxia duela, aipatutako Museoarenak diren ontzi txikien bilduma bat barne hartzen du.

Inguruan Carola izeneko garabia dago, zikoina motatakoa, 60 m altuerakoa. 30 tona altxatzeko gai da eta horrek ere desagertutako ontzioletan parte hartzen zuen.

Gehiago jakiteko: Euskalduna / Maite Ibáñez, José Luis Ibarra, Marta Zabala. Bilbao : Bizkaiko Foru Aldundia, 2002. 200 p.



“Carola” garabia Euskalduna Ontziolen oroigarri bezala gordeta.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 504406 m // Y: 4790447 m // Z: 6 m. Dike lehorrak (3) kontserbatu dira eta horietako batean Itsasadarreko Itsas Museoaren zenbait ontzi erakusgai dago. Horrez gain, Euskalduna Jauregia (1) eta Carola garabia ere ikusten dira (2).